

# Bageraren buletina

2019 maiatza

## Kaixo bagerakide!

Maiatzeko buletinaren bidez, hilabete honetan eskuartean ditugun eginkizun nagusien berri eman nahi dizugu.



## Mintzalagun egitasmoaren 25. Urteurrena

Duela 25 ikasturte Bagerak jarri zuen martxan Mintzalaguna egitasmoa. Horren ondoren, Euskal Herriko herri eta hirietara ere zabaldu da.

Urteurrenak merezi duelako ospakizun jaialdi bat antolatu dugu ekainaren 14an. Mintzalagunean ari zareten guztiak eta 25 urte hauetan zehar

aritu direnak elkartu nahi ditugu, beraz, aurreko ikasturteko mintzalagunekin harremanik baduzue animatu itzazue urteurrenean parte hartzen!

Arratsaldeko 19:00etan San Telmo Museoan ekitaldia izango da eta ondoren Kresala elkartearen afalduko dugu. Afarirako txartelak maiatzaren 20tik aurrera izango ditugu salgai Bagera elkartearen, beraz, azkar ibili eta eskuratu zure txartela!

## Mintzodromoa maiatzaren 28an

Ikasturtea amaitu aurretik maiatzaren 28an egingo dugu azken mintzodromoa San Telmo Museoan. Ohi bezala, bi txanda izango ditugu 10:00etan eta 11:00etan. Animatuz gero, jarri gurekin harremanetan izena emateko.

## Mendian ere euskaraz!

Mendian ere euskaraz ekimenak mendi martxa bateratua antolatu du bigarren urtez eta Bagera Elkarrekin babesa eman dio ekimenari.

Maiatzaren 25ean goizeko 10:00etan Pagomakurretik Gorbeira burutuko da mendi irteera baten bidez. Mendian ere euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatzea du helburu nagusia, baita arnagune hori euskaldun jendeari agerraraztea ere.

Ekimenean parte hartzeko eta informazio gehiago nahi baduzu [mendianereuskaraz@gmail.com](mailto:mendianereuskaraz@gmail.com) helbidera idatzi.

## Herritarrek egin, eragileek eragin, erakundeek eginarazi!

Maiatzean jakin genuen [Donostiako Etxegintza enpresa erakunde publikoko 3 teknikari lanposturako](#) lehiaketaren oinarrietan, euskara ez zela beharrezkotzat hartuko eta salaketa kanpaina bati ekin genion. Gaurkoz, honako erantzuna jaso dugu:

*Aurkeztutako kexari erantzunez, zera adierazi nahi dizugu: apirilaren 17ko bilkuran, Udaltzarak aho batez onartu zuen EH bilduk aurkeztutako mozioa, Donostiako Etxegintza EEPk abian jarritako barne promozioa bertan behera uzteko, Euskara Zerbitzuaren gaiari dagokion txostena jaso arte, eta bertan helarazten zaizkion gomendioei jarraitze aldera.*

Zorionak!

Oraingoan, berriz, Donostian zehar erabilera turistikorako etxebizitzaren etxe atarrietan, erakunde publikoek Donostiako Euskararen Ordenantza urratzen duten plakak alda ditzaten eskatu nahi dugu (VT-vivienda turistika).



Bageratik, euskararen normalizazioaren aldeko konpromisoari eutsiz, hiritarrak animatu nahi ditugu oraingoan ere, gure hizkuntza eskubideak errespetatuak izan daitezen, eta urraketa horiei aurre egiteko, salaketa jartzera [Elebiden](#) eta [Behatokian](#) (edo [Akuilari](#) aplikazioaren bidez).

Jarrai dezagun eragiten!

## Elkarrizketa Filosofikoak

**Maiatzaren 6an** izango da hilabete honetako Elkarrizketa Filosofikoa, ohi bezala, 19:00etatik 20:30era Urrats Euskaltegian. Gaia: Gorputzasuna. Testua: [Gorputzez gorputz iraun. Mugimendua elkarrekin-egote gisara](#). *Feminismoa eta politikaren eraldaketak*. Mari Luz Esteban (Lisipe 2.- Susa) Epilogo (101-108 or.)

## Bageralako Nor Festa

Bagera Elkartek eta [Irutxuloko Hitzak](#) Bageralako Nor! festa egingo dute **maiatzaren 10ean**, Antiguako Doka kafe antzokian. [Atzean Zuloakeko](#) kideek bakarrizketa egingo dute bertan, eta Kilimak, Nerabe, North-asuna eta Rude Kanka artistek musika emanaldiak eskainiko dituzte ere, 19:00etatik aurrera.

Jaialdirako sarrerak (5 euro) jada salgai daude Plateron (Antigua), Pandoran (Gros), Aurrekun (Parte Zaharra), Irutxuloko Hitzan eta Bagera Elkartean.

## Iruña- Veleiara irteera

**Maiatzaren 12an** Arabako Iruña Okan dagoen Iruña-Veleia aztarnategi historikora bisita antolatu dugu. Iruña-Veleiako Gasteiztik 10 kilometrora dagoen erromatar hiri bat zen.

2006an, aurkikuntza epigrafiko harrigarri batzuk egin ziren, eta besteak beste euskarazko idatziak topatu zituzten. Polemika piztu zen EHUK eta Arabako Foru Aldundiak faltsuak zirela esan zutenean.

11:00etan izango dugu Iruña-Veleian bisita, aurkikuntza benetakoa dela babesten duen Juan Martin Elexpuren eskutik. Bisitaren ondoren bazkaria izango dugu eta Elexpuru gurekin izango da, solasaldirako aukera emanez.

Irteera ordua goizeko 09:00etan jarri dugu Donostiatik. Kotxeetan joango gara eta hitzordua Renfeko Norteko geltokian jarri dugu. Animatuz gero, irteeraren prezioa 30 euro da (bisita, bazkaria eta garraioa barne) eta ohiko kontuan egin behar da diru sarrera kontzeptuan izena eta abizena jarriz maiatzaren 9rako (ES33 30350092570920042476 laboraleko kontuan). Kotxea eramaterik baduzu ere eskertuko genizuke jakinaraztea.

## Donostiako udalerako hizkuntza politikaren inguruko mahai ingurua

**Maiatzaren 15ean**, 19:00etan, Donostiako udalerako hizkuntza politikaren inguruko mahai ingurua antolatu du Bagera Elkartek San Telmo Museon.

Mahai inguruan, Miren Azkarate Villarrek (EAJ-PNV), Reyes Carrere Zabalak (EHBildu), Sabin Zubirik (Ekarrekin Podemos) eta PSE-EEko ordezkari batek (zehazteke) hartuko dute parte.

Bi orduko mahai ingurua izango da. Ordubetean beraiei eskainiko diegu tarte bakoitzaren hizkuntza politika zein izango den azaltzeko eta bigarren orduan galderetarako tarte irekiko dugu. Abiatzeko galdera bakarra: Zein da zure alderdiak datozen lau urteetan Donostian aurrera eramango duen hizkuntza politika?

## Donostiako Kantu Jira eta erromeria

**Maiatzaren 18an**, 18:30etatik aurrera, Bagera Elkartek, Udaleko Musika eta Dantza Eskolaren laguntzaz, euskal dantza tradizionalen inguruko erromeria antolatu du Parte Zaharreko Plaza Berrian. Nora Gartzia eta Jone Murua izango dira dinamizatzaileak.

Eguerrian, berriz, Donostiako Kantu Jiran elkartuko gara euskal kanta tradizionalak abesteko. Ohi bezala, Elkar Megadendatik abiatuta.

## ABKrosa, euskararen aldeko herri krosa

**Maiatzaren 25ean** euskararen aldeko VI. AB Krosa egingo dute Amara Berrin, eta lasterketa herrikoirako prestatzeko helburuarekin, auzoan entrenamendu irekiak egingo dituzte maiatzaren 6tik aurrera. Astelehenero egingo dute korrika, Ferrerías plazako Ilunki elkartetik abiatuta, krosaren ibilbidean zehar.

Lasterketaren egunean, parte-hartzaileek hiru edo sei kilometroko ibilbidea egiteko aukera izango dute. Izena emateko epea zabalik da jada [www.herrikrossa.eus](http://www.herrikrossa.eus) webgunean. Animatu eta parte hartu!